


Elkarteetako juntetako interbentzioak



Bermeo herri euskalduna izanik, bertako elkarte gehienak euskaldunak dira. Neurri handi batean, euskaraz funtzionatzen dute. Hala ere, izan ditugun elkarrizketetan ikusi dugu, elkarte batzuek, euskaldunak izan arren, batzarrak gaztelaniaz egiteko joera daukatela. Zergatik?



- Batzarrean parte hartzen duen kideren batek euskaraz ez dakielako
- Batzarrak gaztelaniaz egiteko ohitura hartu dutelako
- Kide batzuk euskaraz alfabetatugabeak direlako
- Batzarra “berotzen” bada, kideek gaztelaniara salto egiten dutelako...



Gai honen guztien inguruan hitz egiteko, eta elkarteetako batzarretan euskara gehiago erabiltzeko, elkarteetako juntetan interbentzioak egin nahi ditugu.

Zertan datza interbentzioa?




Elhuyar Aholkularitzako teknikari batek elkartearen juntako batzarrera hurbilduko da eta elkarteetako kideekin lanketa egingo du:

- Batzarren dinamika nolakoa den aztertuko da: noiz, nork, nola eta zergatik erabiltzen den hizkuntza bakoitza.
- Zein eta nolakoa izan liteke euskararen erabilera elkarteak dituen baliabideak kontuan hartuta (euskaldun kopurua, laguntzak...).
- Aurrera begirako konpromisoak hartu eta proposamenak egingo dira.



Saio bakarra egingo da, ordu eta erdi ingurukoa. Beharra izanez gero, saio-kopurua edo iraupena egokitu daitezke.

Zure elkartean interbentzioa jaso nahi?



Zure elkartean, aipatutako arazoa baduzue, pozik joango gatzazkizue laguntzera.

Kanpaina honetan, **Geurien be bai** hitzarmena sinatu duten eragile guztiek har dezakete parte.



Ziur, elkarteetako jarduna ere euskaldunduko dugula!

